


Erregimen inperialari esker, Franko-prusiar guda erortzen ari zen, 1870eko irailaren 4ean osatutako behin-behineko gobernuak gehiengo ordezkatzen zuenik esan ez zezakenean. Izan ere, erregimena ordezkatu zuten haiek ez ziren adostasuneran iristen haien garaipenari jarraitasuna emateko garaian, ezta guda amaitzeko moduaren inguruan ere. Prusiarrekin sinaturiko armistiziotik, Paris, 1871ko apirilean guda zibilean murgildurik zegoen. "Pariseko komuna"ren ideiarekin aldekoa eta boterea hartu zutenen metodo diktatorialen aurkakoa zen Hugo, komunar iraultzaren espirituarekiko urrunago dago gertakariak aurrera joan ehinean. Gatibuak izan zituen komunaren sarraskia beldurgarria iruditu zitzaion, herri zibilizatu batentzat doilorra. Baina Versaillesen gunea duen Thiers-en gobernuaren errepresio itxu eta basatira mugatzen denez, Hugok berehala hartzen du berezko izan zezakeen bide bakarra: errukiarena. Olerkia. Ondoren berregindako urte beldurgarriak, gertakariaren berehalako ekintza irudikatzen du, data lortzearen urgentziarena, etengabe lanean ari ziren epai militarren erantzunaren zain egon ezinean. Hasi berria zen borroka luze baten lehenengo pausoa zen.

«Zagopean hartuak direnentzat», Urte izugarria, Ekaina, XIII.

“A, zuekin nago! Bozkario goibel hori daukat. Zanpatu, jipoitu, suntsitu egiten dituztenen Hurbil nago; anaia natzaie; garaile zirelarik Etsai nituenak defendatzen ditut galtzaile direnean; Nahiago dut, gainera erori zaien gauak bainau argitzen, Haien irainak ahantzi, ahantzi haien kolera, Eta beraien artean aipatzen nauten izenak oro. Ez daukat haboro etsairik zorigaiztoan direlarik. Baina batez ere herria da, bere soldata zor zaion herria, Askotan gorrotagarri egiten den herria, Horixe da, ondikozko familia, gizon, emazte, haur, Eskubide, etorkizun, lan, oinaze, nik dudana defendatzen; Oihestua, ahuldua defendatzen dut nik, eta ez ukanik non Oinarri hartu, lur jota gertakari beltzenen zolan ero eroria; Eskolabakoak izanik, kupidabakoak ditugu; Ondikotz!, zenbat aldiz esan behar ote zaizue berriro Zuei guztiei, zeuei zegokizuela bideratzea, Hirian behar zuten lekua eman behar zitzaie, Zeuen ezin ikusiak sortzen duela haien itsumena; Horra hor tutela zeken baten ondorioa, Egiten dizueten kaltea, haiei eginak zarete zuek. Ez dituzue gidatu, ez dituzue eskutik hartu, Ez bereizten irakatsi ilunpea eta zinezko bidea; Abandonatu egin dituzue labirintuari buruz. Zuen ikara dira eta zeuek haien izua zarete; Ez baitituzue zuen haurridetzako hartu. Erratuak dira; onerako senak argitasuna du hazkurri; Ez daukate beren arima iluna non pausatu; Izarniadura bat bilatzen dute han goian Adarrak baino lodiago eta goibelagoa den gauean; Farolarik ez. Haztamuka, larriturik, kinka gorrian, Nolatan du pentsatuko ezin duenak bizi? Zirkulu lazgarri batean itzulika, horditu egiten da; Ezeriak, errota lakarra, erotu egin zuen Ixion. Horregatik hartu dut halako erabakia, Ogia eta argia eskatzekoa horientzat guztientzat.”

1879

Victor Hugo F. Nadarrek egina. MVH© J. Vigne et PMVP



AMNISTIA KOMUNARRENTZAT

“Hitz bat besterik ez.

Ardura mintzatu izan naiz amnistiaz, eta menturaz nire hitzak ez dira oraino guztiz ezabatu zuen espirituetan; ez ditut errepikatuko.

Zuen esku uzten dut zeuen buruari errepikatzea noiznahi eta beti amnistiaren alde eta amnistiaren aurka esan direnak, gertatuen maila bietan, maila politikoan eta maila moralean. Maila politikoan, beti krimen berdinak egotzi alde batekoek beste aldekoek, beti, garai guztietan, akusatuak nornahi direla, epaileak nornahi direla, kondena berdinak, ilunpearen hondoan hitz oiher eta anker hau ageri dutela: garaileek epaitzen dituzte garaituak. Maila moralean, beti intziri berdina, beti otoitz berdina, beti laztura berdina, haserre edo eztiro, eta hitz-jario guztiak gaintzen dituen: emaztekiak eskuak zerura luzaka, amak negarrez. (Hunkidura)

Egun horretan (uztailaren 14an), hilduratzeko luze baten ondotik, hainbeste tortura-mende pairatuta, Gizateria erraldoi eta gurgarria altxatu egin zen, zangoetan kateak zituela, eta buruan korroa.

Jaunok, egun hori bi moldetan ospatzea eskatzen zaizue, biak ere bikainak. Ez duzue huts egingen noski. Armadari drapoa emanen diozue, aldi berean adierazten duena gerraren loria eta bakearen indarra; nazioari amnistia emanen diozue, esan nahi baita konkordia, ahanztura, adiskidetzeta, eta, han goian, argitasunean, gerra zibilaren gainetik behar duen bake zibila.”

Senatuaren puntu gorenekoengana zuzenduz (ia beti erantzunik jaso gabe) ahal zuten kondenatu kopuru altuenaren hilketa edo erbesteratzea ekiditen saiatu ondoren, Hugo bera senatari bihurtzen denean, komunaren ondorio juridikoak ezabatu eta biziraun zutenak gizarteratzea suposatuko lukeen amnistia orokor bat lortzen saiatzen da. Amnistia hau 1880ean iritsiko zen, uztailaren 14a festa nazionaltzat finkatu zenean.

«Senatuko diskurtsoa 1880ko uztailaren 3an», Esanak eta Eginak, IV.